



Alkatetzaren 2119/2024 Ebazpenaren bidez onartutako deialdia

UHARTE

Premiazko deialdia, administrari-ofizialak aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko, Uharteko Udalaren beharrak direla-eta

Deialdiaren oinarriak

1.-Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da C1 hizkuntza-eskakizuna duten administrari ofizialen zerrenda bat sortzea, Uharteko Udalaren beharizanei erantzuteko, presazko prozeduraren eta oposizio-lehiaketaren bidez aldi baterako kontratazioak egiteko.

Presako prozedura 113/1985 Foru Dekretuaren 42.2.d) artikulua araberak aplikatzen da, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko araudia onesten duena.

1.2. Euskarako nahitaezko hizkuntza-eskakizuna, C1 maila ahoz eta idatziz, duten lanpostuak beteko dituzte deialdiaren barnean maila hori egiaztatzen duten izangaiek.

1.3. Zerrendak behin-behineko ordezkapenak egiteko erabiliko dira, laneko bajak edo oporraldiak direla-eta hutsik geratzen diren lanpostuak betetzeko, bai eta udal zerbitzuak indartzeko ere, behar puntualak sortzen direnean. Baliteke zerrenda hori lanpostu hutsak betetzeko erabiltzea, kontrataziorako barne-araudia betez gero.

1.4. Bere mailako eta kategoriako eginkizunak beteko ditu.

1.5. Lanpostuek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen C mailari dagozkion ordainsariak izanen dituzte. Era berean, plantilla organikoan ezarrita dauden soldata-osagarriak ere jasoko dituzte, baita hitzarmen kolektibo bidez lor daitezkeenak ere.

1.6. Lanaldia osoa nahiz partziala izan daiteke. Horiek guztiak zerbitzuaren beharretara egokituko dira eta noiznahi aldatzen ahalko dituzte administrazio organo eskudunek, aplikatzekoa den araudian ezarritakoarekin bat.

2.-Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:



Alkatetzaren 2119/2024 Ebazpenaren bidez onartutako deialdia

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio; orobat, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetako herritarren ezkontideek, zuzenbidez bananduta ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, beren kontura biziz gero.

b) Adinez nagusia izatea eta erretiroko adina ez izatea.

c) Dagozkion eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

d) Gutxienez ere Batxilergoko edo 2. mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokideren bat izatea, edo eskabideak aurkezteko azken egunerako hori lortzeko baldintzak izatea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

Izangaiek alegatzen badute eskatutako kategorian aritzea ahalbidetzen dieten ikasketa baliokideak dituztela, baliokidetasun hori aitortzen duen lege edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute edo, bestela, aurkeztu beharko dute Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak emandako ziurtagiria.

e) Ezgaitua edo gabetua ez egotea eginkizun publikoetan jarduteko, eta administrazio publikoren baten zerbitzutik kendua ez izatea. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek frogatu beharko dute beren Estatuko funtzio publikoan sartzeara eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela.

f) Nafarroako Gobernuak emandako euskarazko gaitasun-titulua (EGA) edo ofizialki onartutako titulazio baliokidea izatea, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 mailaren baliokidetzat aitortutako tituluak, edo horretarako eskainitako proba gainditzea.

g) Nafarroako Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile edo enplegu-hobekuntza gisa izena emanda egotea, parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

3.-Eskabideak.



Alkatetzaren 2119/2024 Ebazpenaren bidez onartutako deialdia

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Uharteko Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dira (San Juan plaza, 1, 1.a; 8:30etik 14:00etara), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako bideetako edozein erabiliz, **10 egun balioduneko epean**, deialdia Udalaren web orrian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Eskabideak aurkeztuko dira jarraikiz deialdi honen I. eranskineko ereduari.

- Eskabidean izangaiek adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatzen diren baldintza guzti-guztiak hautapen-prozesuan parte hartzeko.
- Halaber, helbide elektroniko bat adierazi beharko dute, baimena emanaz helbide hori erabil dadin prozedura honetako jakinarazpenak gauzatzeko baliozko bide gisa.
- Uharteko Udalaren erregistro orokorrean eskuratuko da eskabidearen eredu; bestela, Interneten, www.huarte.es helbidean.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.2. Eskaerari honako agiri hauek erantsiko zaizkio behar bezala bete ondotik:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Lanpostuaren maila egiaztatzeko eskatzen den titulazioaren fotokopia.

c) C1 euskara-maila duela egiaztatzen duen dokumentazioa, edo hori egiaztatzeko Euskarabidearen proba egiteko eskaera.

Deialdia premiazkoa dela eta enplegu-eskatzaile gisa inskribatutako pertsonen artean langileak hautatzea premiazkoa dela ikusita, ez da inolako tasarik ordaindu beharko.

e) Hala badagokio, lan-esperientzia, lan-bizitzaren bidez eta dagokion administrazioak edo enpresak emandako ziurtagirien bidez egiaztatua, zehazki zer lanpostu bete den adierazita.

4.-Behin-behineko zerrendak.

Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda ikusgai jarriko da Uharteko Udalaren iragarki-taulan eta udal webgunean (<http://www.huarte.es>).



Alkatetzaren 2119/2024 Ebazpenaren bidez onartutako deialdia

Baztertuek edo beren eskabidea zuzendu behar dutenek 3 egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik, bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak edo agiriak aurkezteko.

Inor baztertzen ez bada, zuzenean argitaratuko da behin betiko zerrenda, eta zerrenda horretan bertan jarriko dira hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia.

5.–Behin betiko zerrendak.

Aurkezten diren alegazioak ebatzi ondoren, alkateak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta hori ikusgai jarriko da Uharteko Udalaren iragarki-taulan eta udal webgunean (<http://www.huarte.es>), hautaproba egiteko eguna eta tokia adierazita.

Onartuen zerrendetan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortu zaienik deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek kontratazioa egiteko deia egiten zaielarik aurkeztu behar duten dokumentazioa aztertutakoan, baldintzaren bat denbora edo formari dagokionez betetzen ez dela ohartuz gero, interesdunek deialdi honetan parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Zehazki, eskatutako euskara-maila egiaztatzen duen titulaziorik aurkeztu ez duten eta horretarako maila-proba bat egitea eskatu duten pertsonak onartzeko, maila-proba hori benetan egin eta gainditu beharko da.

Ebazpen horretan izendatuko dira kalifikazio epaimahaiko kideak, guztien izenekin eta behin betiko.

6.–Kalifikazio epaimahaia.

6.1. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

–Epaimahaiburua: Alfredo Arruiz Sotés, Uharteko Udaleko alkatea.

–Ordezkoa: hark izendatzen duena.

–Epaimahaikidea: Amaia Elkano Garralda, Uharteko Udaleko idazkaria.

–Ordezkoa: hark izendatzen duena.

–Epaimahaikidea: ordezkaritza sindikalak izendatzen duena.

–Epaimahaikidea: Ana Mindegia Ilarregi, Uharteko Udaleko euskara teknikaria.



Alkatetzaren 2119/2024 Ebazpenaren bidez onartutako deialdia

–Ordezkoa: hark izendatzen duena.

–Epaimahaikide-idazkaria: Gustavo Jiménez, Udaleko giza baliabideen kudeatzailea.

–Ordezkoa: hark izendatzen duena.

Hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da epaimahaia.

6.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertan ez badago.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balioa izateko, bertan egon beharko dute epaimahaiburuak eta mahaikide-idazkariak edo haien ordezkoeak.

6.3. Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errekusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza jasotzen ahalko du proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

7.–Hautapen prozesua.

Oposizio-lehiaketa bidez egingen da kontratazio zerrenda osatzeko langileak hautatzeko prozesua. Oposizioaldiak 70 puntu balioko du eta lehiaketaldiak 30 puntu.

1.–Oposizio aldia: 70 puntu.

- Test motako ariketa: 70 puntu. Bazterturik geldituko dira 25 puntu baino gutxiago ateratzen duten izangaiek.

2.–Lehiaketaldia: 30 puntu.

- Esperientziaren balorazioa: 30 puntu.



Alkatetzaren 2119/2024 Ebazpenaren bidez onartutako deialdia

8.–Proben nondik norakoa.

8.1. Oposizio aldia.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean zehaztuko da probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

Ohartarazten da, ordezkapenak betetzeko premia dela eta, proba hori onartutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo 7 eta 20 egun naturalen artean egingo dela.

Probarako deialdi bakarra egingen da. Izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute eta, eskatzen bazaie, erakutsi egin beharko dute, bestela kanporatu eta baztertuko baitira, salbu eta zuzenbidean onarturiko beste moduren batean nor diren egiaztatzen badute egintza horretan berean. Probetan oharretatik kopiatzeak nahiz beste edozein iruzur egiteak berehalako kanporatzea ekarriko du, jarduketa penalak deusetan galarazi gabe, hala behar bada.

Probara agertzen ez diren izangaiek ere oposiziotik kanpo geldituko dira.

Hautapropa egiteko, desgaitasuna duten izangaiek hala eskatuz gero, denborak eta baliabideak ahal bezala moldatuko dira, haien eskabidean adierazi dutenaren arabera.

8.1.1. Oposizio aldiko proba teorikoa:

Oposizio aldiko proba teorikoa test motako galde-sorta bat izanen da, II. eranskineko gai-zerrendari buruzkoa, eta idatziz erantzun beharko dena epaimahaiak proba hasi aurretik ezarriko duen gehieneko denboran. Hainbat erantzunetako galderak izanen dira eta erantzunetako bakarra izanen da zuzena.

Bazterturik geldituko dira gutxienez ere puntuazioaren erdia lortzen ez duten izangaiek.

Test motako ariketa plika sistemaren bidez egingen da.

Ariketa hasi aurretik, epaimahaiak erabakiko du erantzun okerrekin puntuak kenduko dituzten ala ez, eta, hala bada, zenbateko penalizazioa izanen den.

Test motako proba egin ondoren, kalifikazio epaimahaiak akta bat egingen du parte-hartzaile bakoitzari emandako emaitzaren behin-behineko kalifikazioarekin, eta 3 egun baliouduneko epea emanen du nahi dutenek haren



Alkatetzaren 2119/2024 Ebazpenaren bidez onartutako deialdia

aurkako alegazioak aurkez ditzaten. Akta hori udalaren webgunean argitaratuko da.

Alegazioak ebatzi ondoren, kalifikazio epaimahaiak akta bat egingen du parte-hartzaile bakoitzari emandako behin betiko kalifikazioarekin eta, proba hori gainditu dutelako, oposizio aldiko bigarren probara igaro direnen zerrendarekin. Horrekin batera, oposizio aldiko bigarren proba noiz eta non egingen den adieraziko da aktan, eta hori guztia udalaren webgunean argitaratuko da.

8.2. Merezimenduen kalifikazioa:

Oposizio aldia gainditu dutenen zerrenda ikusi ondoren, izangai horiek aurkeztu dituzten merezimenduak baloratuko ditu kalifikazio epaimahaiak.

8.2.1. Esperientzia: gehienez 30 puntu emanen dira.

- Administrazio publikoren batean administrari-ofizial gisa aritzeagatik: 2 puntu urteko. 30 puntu, gehienez.
- Administrazio publikoren batean administrari laguntzaile gisa aritzeagatik: 1,5 puntu urteko. 20 puntu, gehienez.
- Enpresa pribatuetan administrari gisa aritzeagatik: 0,5 puntu urteko. 20 puntu, gehienez.

Atal honetarako gehieneko puntuazioa 30 puntukoa izanen da; beraz, puntuazio handiagoa lortu arren, lanpostu horietako batean baino gehiagotan egindako lanak egiaztatzeagatik, merezimenduen atal honetako puntuazioa ez da inoiz 30 baino handiagoa izanen.

Urtebetetik beherako lanaldiak egiaztatuz gero, lan egindako aldiaren proportzioan emanen da puntuazioa.

Laneko esperientzia egiaztatzeko, izangaiek lan bizitza aurkeztu beharko dute, bai eta administrazioaren edo enpresaren egiaztagiria ere.

8.2.2. Aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta, kalifikazio epaimahaiak akta bat egingen du izangaiek aurkeztutako merezimenduen behin-behineko balorazioarekin.

Merezimenduen behin-behineko balorazio horren kontra erreklamazioak jar daitezke 3 egun balioduneko epean, udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik hasita.



Alkatetzaren 2119/2024 Ebazpenaren bidez onartutako deialdia

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako eta frogatutako merezimenduez.

Epaimahaiak ezin izanen du inola ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agiri bidez frogatu gabeko merezimendurik, eta ezin izanen du puntuazio altuagorik eman, apartatu bakoitzean adierazitako gehieneko puntuazioa baino.

Alegazioak berrikusi eta aztertu ondoren, kalifikazio epaimahaiak akta bat eginen du izangai bakoitzak lehiaketaldian lortutako behin betiko puntuazioarekin.

9.–Euskara maila egiaztatzea titulazio bidez egiaztatzen ez duten izangaientzat.

Oposizio-faseari dagokion behin betiko puntuazioa ezarri ondoren, eta merezimenduen baremazioarekin batera, euskara-mailari buruzko proba egingo zaie hori egiaztatzen duen titulurik aurkeztu ez dutenei.

Proben eguna eta ordua gutxienez 3 egun baliodun lehenago iragarriko dira, toki-erakundearen web orrian eta iragarki-taulan argitaratuta.

Aurkeztu ez diren eta proba hau gainditzen ez duten pertsonak deialditik automatikoki ezabatuko dira, lanpostuaren nahitaezko baldintzetako bat egiaztatu ez dutelako.

Proba gainditu eta euskararen ezagutza-maila C1 dela egiaztatzen dutenei deialdiaren oposizio- eta merezimendu-fasean lortutako emaitzak zenbatuko zaizkie.

10.–Kontratazio zerrendaren proposamena.

Lehiaketaldia eta oposizioaldia amaitu ondoren, bai eta haitagai guztien euskararen maila ere, kalifikazio epaimahaiak kontratazio zerrendaren proposamena eginen du, izangaia puntuazioaren arabera ordenatuta.

Zerrenda Interneten bidez ere kontsultatzen ahalko da, www.huarte.es helbidean.

Puntu berdinketa izanez gero, zozketa eginen da.

Langileak kontratatzeko lehentasun hurrenkera ezartzen duen kontratazio zerrendaren proposamen hori Alkatetzari igorriko zaio, Alkatetzaren ebazpen bidez onar dadin.

11.–Kontratazio zerrenden kudeaketa.



Alkatetzaren 2119/2024 Ebazpenaren bidez onartutako deialdia

Kontratazio-zerrenda hautagaien behin betiko emaitzak onartu eta berehala jarriko da indarrean, dagokion alkatetza-ebazpenaren bidez. Nolanahi ere, Udalaren webgunean argitaratutako 2023/0136 zenbakiko alkatetza-ebazpenaren babesean eratutako "administrari ofizial posturako langileen aldi baterako kontratazioaren" zerrendari aplikatuko zaio subsidiarioki.

12.–Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka nahiz oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsok hauetako bat aurkez daiteke, aukeran:

- a) Berraztertzeke errekurtsok, egintza gauzatu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsok, zuzendua Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- c) Gora jotzeko errekurtsok, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den erabakia argitaratzen edo egintza jakinarazten denetik hasita.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsok paratzen ahalko da, Tokiko Gobernu Batzarrari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsok paratzen zaion egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

13.–Datuen babesa.

Deialdi honetara aurkezten direnek onartzen dute deialdi honetan ematen dituzten datu pertsonalak gordetzen eta tratatzen ahalko dituela Uharteko Udalak, eta ayuntamiento@huarte.es helbidean aurkeztu beharko dituzte datuen babesaren esparruan legez dagozkien erreklamazioak.

Uharten, 2024ko martxoaren 27an.